

Euskadiko gazteen artean, arte eszenikoekin lotutako kultura-jarduerak ez daude Europako gazteengan bezain zabaldurik


Gazteak aktiboagoak dira jarduera horietan, Euskadiko biztanleria osoa baino.

Arte eszenikoekin lotutako jarduera artistikoak (antzerkia, dantza edo musika) praktikatzen dituzten EAEko gazteen zifrak Europako gazteen batez bestekoekin konparatuko ditugu [Gazteen Euskal Behatokia](#)n.

Horretarako, aintzat hartuko ditugu, batetik, 2012an egindako azterlan propio baten ondorioak (orain argitaratze-bidean dagoena) eta, bestetik, Europako Batzordeak azaroko [Cultural Access and Participation](#) txostenean plazaratutako datuak.


Datu horien arabera, Europar Batasunean (28 Estaturen batez bestekoa), 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 23 dantzan edo balletan aritu izan dira inkesta egin aurreko 12 hilabeteetan (nor bere kabuz, talde batean, klaseak hartuta...). % 16k musika-tresnaren bat jo dute, % 16k kantatu egin dute (talde edo abesbatza batean...) eta % 6k antzerkigintzan jardun dute.

EAEko adin-talde bereko gazteen artean, askoz ere baxuagoak dira jarduera horietan aritu izan diren gazteen ehunekoak: % 9 dantzan edo balletan; % 11 musika-tresnaren bat jotzen; % 4 talde edo abesbatza batean kantuan; eta % 3 antzerkigintzan.



Aldiz, alderaketa EAEko biztanleria osoarekin eginez gero, arte eszenikoei lotutako praktika hauek ohikoagoak dira gazteen artean biztanleria osoan baino. Alderaketa honetarako, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak [Encuesta de hábitos y prácticas culturales 2010/2011](#) txostenean argitaratutako datuak erabili ditugu.


**Arte eszenikoekin lotutako kultura-jardueretan aritzea.
EAEko gazteen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak (Euskadiko gazteak 2012) eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarenak (Encuesta de hábitos y prácticas culturales 2010/2011) oinarri hartuta

Bestetik, praktika artistikook Euskadiko gazteengan izandako bilakaera aztertu dugu eta, ikus dezakegunez, datuak ez dira asko aldatu [2008](#)tik 2012ra: pixka bat behera egin du musika-tresna bat jotzen dutela diotenen ehunekoak, eta puntu bat gora, aldiz, dantzan edo antzerkigintzan aritu direla diotenenak.

**Arte eszenikoekin lotutako kultura-jardueretan aritutako
Euskadiko gazteak. 2008 eta 2012 arteko bilakaera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak (Euskadiko gazteak 2012) eta Kulturaren Euskal Behatokiarenak (Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistikak 2007-2008) oinarri hartuta

Beraz, ondoriozta daiteke proposatutako lau jarduera artistikoetatik, musika-tresna bat jotzea dela zabalduena Euskadiko gazteen artean, nahiz eta azken urteotan lagun horien ehunekoak behera egin duen eta Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik dagoen.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

